

LA FIESTA DE LA POESIA VASCA

Organizada por la entidad "Euzkaltzaleuk" tuvo lugar en esta villa, el domingo 1 de Junio último, una fiesta dedicada a la poesía vasca, aprovechando esta oportunidad para rendir homenaje a los poetas renterianos.

Como la prensa diaria dió amplios detalles de esta simpática fiesta, nos limitaremos a reproducir con sumo agrado algunos trabajos de los poetas homenajeados, asociándonos así, a la merecida distinción de que fueron objeto ese día.

Trozos de la poesía premiada - MAITALE KUTUNA GAZTAROA

Iñoiz ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurok laztanduten dabe.
Begui gelgarriz dargist biotzeko iluna
eta bere lanozak uzainduten nabe.

Zerutarr egak ditu maitasuna zaleak;
lurrera baxen sarri so-dagi qrtzira.
Bere leuntasun zear mozu sutsuenak.
otor span ganean bulrtutzen dira

Euskal-Erria

¿Ote da mundu ontan
beste tokirikan,
gure Euskal Erria
beñiz ederrikan,
au beziñ langillea
eta txukunikan,
onek aña egintza
eder duanikan?.....
Agian bai, baña ez
det uste danikan.

Toki askotan dira
ikusten mendiyak,
zelayak, soro, baso,
eta belardiyak,
errekato ibayak
eta iturriyak,
erri politik eta
baserri txuriyak,
baña... ez dira emen
beziñ pozkarriyak.

Badira gende onak
beste lekuetan,
ontasuna dutenak
beren biotzetan;
baña sartu zaitzetze
Euskal Errietan,
ala bere baserri
nola kalietan,
eta on egiñ naia
alde guztietan.

¿Mendiyan norbait dabill
bidea galdurik?...
Ez dauka baserriyan
mintzatu besterik.
Ez du an igaroko
gose egarririk,
etzaio lotarako
ukatuko oirik,
ez diote egingo
mesede besterik.

¿Non arki emen beziñ
oitura garbiak?...
Izaten dira non-nai
jolas jai aundiak,
eta jostaturikan
zar eta gastiak,
alaitasun ta pake
osuan guztiak,
biurtzen dira etxera
batak ta bestiak.

Bein alde abetara
diranak etortzen,
ao batetik bezela
dirade mintzaten.
Eta: ¿Zer diozute
berari entzuten?
Orlako tokirikan
ez dala arkitzen,
t'emen ez diradela
beñ' ere aspertzen.

Gaixo dagonak nai du
arki osasuna,
aienatu azirik
ber'eritasuna,
ta nai ditu pakea
ta ixiltasuna.
¿Non utziko du bada
ark mintsutasuna?...
Euskal Errian, leku
txit osasunduna.

Zeugan pentzatzan nabil Jaunaren bidean
eta lokatz artean egaz dagit azkar.
Andra baten oroia naiko da lurrean
garbi irauan dagui guntzat etsai orok zeari.

¡O! nere biotzeko ezkongai gardena!
beti, arren, aditu matiatzi ortzira.
Zeugan mosua baxen kutun dot arrena
¡Andrak ederrerin dira zerurantz beguiral!

Badira ezkotegi (1)
mot'askotakuak,
eta badira ere
itsas ertzeakuak,
gaixotasun geienak
sendatutzeakuak,
aize osasungarri
mendi aldekuak,
birikak garbitu ta
sendaraztekuak.

Gende asko etorzen
da Euskal Errira,
eta geienak bertan.
gelditutzen dira,
geiago joan nai ezik
beren alderdira.
Beste lekuetan ere
toki onak badira,
bañan... emendik urren...
zeruan erdira.

Entzutean emengo
kanta eztiitsuak,
beti alaiak eta
beti paquetsuak,
badiruri abesten
dutel' aingeruak,
aiñ dirade politik
eta gozatsuak,
non geienaz diraden
kanta zerukuak.

Izar ederrak asko
dirade zeruan;
bat txit dizdizariya
bestian onduan.
Emen ere gertatzen
da ango moduan.
Leku asko politik
dauzkat nik goguan,
baña Euskal Erria.....
bakarra munduan.

¿Esatera nuan au
dala geiegia?.....
Bear bada ala da
t'agiyan egia.
Nik esan bear banu
da Euskal Erria,
goiko zeru ederran
puxkatxo txikia,
askatu ta bertatik
noizpait eroria.

Enrike Elizetxea - k.

(1) Balneario.

